

# GAUAREN SAKONEAN

HARUKI MURAKAMI



erein

# GAUAREN SAKONEAN

4

---

uzta gorria

erein argitaletxea

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

---

*Liburu honek Eusko Jaurlanitzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.*

Jatorrizko izenburua:

アフターダーク

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazia:

Erein

© Haruki Murakami 2004

© Itzulpenarena:

Ibon Uribarri Zenekorta

© EREIN. Donostia 2009

ISBN: 978-84-9746-548-9

L. G.: SS-1560/09

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.com](mailto:erein@erein.com)

[www.erein.com](http://www.erein.com)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [edizioak@itxaropena.net](mailto:edizioak@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

HARUKI MURAKAMI

**GAUAREN  
SAKONEAN**

Itzultzailea: Ibon Uribarri Zenekorta

erein

erein argitaletxea

## 1

**23:56**

Hiri handiaren ikuskizuna dugu begien aurrean.

Goi-goian hegan dabilen gautxori baten begiekin atzematen dugu ikuskizun hori zerutik. Ikusmira zabal horretatik begiratuta, hiri handiak bizidun erraldoia dirudi. Edo, agian, elkarlotutako hainbat bizi-formek osatzen duten multzo baten itxura du. Odol-hodi zenbatezinak hedatzen dira izaki mugaezin horren muturretaraino, odola higiarazten dute, zelulak ordezkatzan dituzte etengabe. Informazio berria igortzen dute, informazio zaharra bildu. Salgai berriak hornitzen dituzte, salgai zaharrak bildu. Kontraesan berriak sortzen dituzte, kontraesan zaharrak bildu. Bihotz-taupaden erritmoan izakiak ñir-ñir egiten du edonon, bor-bor egiten du sukartsu. Gauerdia gertu, ekimenaren goia gainditu da azkenik, baina bizitza ibilian mantentzen duen oinarrizko metabolismoak

ahuldu gabe darrai ekinean. Horrek sortzen du hiriaren *burrumbaren* baxu jarraitua. Gorabeherarik gabekoa, monotonoa, baina aieruz betetako burrunba.

Argi asko biltzen den txoko batera lerratzen da gure begirada, puntu horretara bideratzen da. Noranzko horretan jaisten gara poliki-poliki. Neoizko itsaso koloretsua topatzen dugu. Aisialdi-auzo deitzen zaion horietakoa da. Eraikinen hormetan itsatsita dauden pantaila digital erraldoi ugariak isilduz doaz gauerdiaren muga, baina denden atariko bozgorailuek hip-hop musika izugarri astuna jaurtitzen jarraitzen dute lotsarik gabe. Gazte jendez mukurua dagoen jolas-gunea. Musika elektronikoa koloretsua. Festa amaituta etxerako bidean doan ikasle-taldea. Ileak ikusgarriki horizatuta, minigonaren azpian bizango biluzi osasuntsu erakusten dituzten neskatxak. Azken trena galdu nahi ez duten bulegariak rau zeharkatzen dute bidegurutzea diagonalean. Gaueko ordu horiek diren arren, karaoke tabernetako atezainek bezeroak oihuka erakarri nahian jarraitzen dute beti bezala. Itxura deigarria duen sedan beltza kaleetan zehar irristatzen da emeki, auzoaren balioa neurtu nahiko balu bezala. Leihoak beltz-beltz tindatuta ditu. Horrela, itsasoaren hondo-hondoan bizi den izaki bat iradokitzen digu, azal eta organo bereziak dituen izakia. Begirada urduriko bi polizia gazte patruilatzen ari dira kale berean, baina inork ez die erreparatzen. Ordu horietan hiriak bere lege propioen arabera funtzionatzen du. Udazkena amaitzear

dago. Haizerik ez badago ere, giroa hotza da. Istant batean egunez aldatuko gara.

*Denny's* jatetxe batean gaude.

Argiztapena arrunta baina nahikoa da, barne-apainketak eta ontziteriak ez dute ezer esaten, enpresa-ingeniariek xehetasun osoz diseinatu dute barne-espazioa, hondoko musika epela entzuten da baxu-baxu, gidaliburuari zehatz-mehatz eutsiz zerbitzatzeko trebatuta dauden zerbitzariak dabilta firi-fara. “Ongi etorriak *Denny's*era”. Dena modu anonimo eta trukagarrian dago antolatuta. Jatetxea ia beteta dago.

Jatetxearen barnealdea aire berean aztertu ondoren, gure begirada leihoaren ondoan eserita dagoen neska bategan pausatzen da. Zergatik horrengan? Zergatik ez beste norbaitengan? Ezin jakin. Hala ere, arrazoiren bategatik neska horrek atentzioa eman digu..., berez gertatu da. Lau pertsonentzako mahaian dago eserita, liburu bat irakurtzen. Kirol-jertse txanoduna darama, blue-jeansak, hainbestetan garbituagatik marguldutako tenis-oinetako horiak. Ondoko eserlekuaren bizkarraldean kirol-jaka bat dago dilindan. Horrek ere ez du berri itxurarik inondik ere. Adinez unibertsitatean hasi berria hor nonbait izango da. Dagoeneko eskola umea ez den arren, eskola ume baten airea du oraindik. Ile beltza du, motza eta lisoa. Makillaje gutxi, apaingarririk bat ere ez. Aurpegi

mehe eta txikia. Euskarri beltzeko betaurrekoak daramatza. Bekokian noizean behin zorroztasun imintzio bat sortzen zaio.

Irakurketan murgilduta dago bil-bil neska. Ez du kasik begirada altxatzen. Azal gogorreko liburukotea da, baina paperezko estalkia daukanez, ezin jakin zer liburu den. Serio-serio irakurtzen du, eduki sakoneko liburua izan behar du. Ez du arrapaladan irakurtzen, lerroak banan-banan arretaz hausnartzen dituela dirudi.

Mahaiaren gainean kafe-kikara bat dago. Hautsontzi bat ere bai. Hautsontziaren aldamenen beisbol-kapela urdin ilun bat. Boston Red Sox taldearen *B* ikurra darama. Handiegia, ziurrenik, neskaren bururako. Soinean gurutzatzeko larru marroiko poltsa dago aldameneko eserlekuan. Hain dago puztuta, non ematen baitu gauzak azkar batean edonola sartuz bete duela. Neskak aldian behin kafe-kikara hartu eta ahora eramaten du, baina ez dirudi gusturik hartzen dionik. Begien aurrean duelako hartzen du kafea, betebeharra balitz bezala nolabait esateko. Otutzen zaionean, tabakoa eramaten du ahora, eta plastikozko pizgailuaz pizten du. Begiak estutuz, kea airean sakabanatzen du nasaiki, tabakoa hautsontzian pausatuta, eta lokiak laztantzen ditu hatz-puntekin, balizko burukomin bat uxatzeko.

Jatetxean Percy Faith eta bere orkestraren *Go away little girl* pieza entzuten da baxu-baxu. Noski, inor ez da musika entzuten ari. Hainbat motatako jende ugari dago

gaueko ordu horietan *Denny's* jatetxean zer bait jaten eta kafea hartzen, baina neska hori da bakarrik dagoen emakumezko bezero bakarra. Noizean behin begirada liburutik altxa eta eskumuturreko erlojua begiratzen du. Denborak, antza, ez du berak nahi adina arin egiten aurrera. Hala ere, ez dirudi norbaiten zain dagoenik. Ez du jatetxea aztertzen, eta ez du sarrerarantz begiratzen. Liburua irakurtzen du, bakar-bakarrik, noizean behin zigarreta bat pizten du, kafe-kikaratik edaten du mekanikoki, ea denbora pixka bat arinago igarotzen den. Esan gabe doa goiza oraindik oso urrun dagoela.

Irakurtzeari utzi eta leihotik begiratzen du. Lehen pisuko leihotik kaleko animazioa begizta dezake behean. Ordu berantiar horietan ere kalea ongi argizatuta dago eta jende ugari dabil gora eta behera. Helmuga bat duten pertsonak eta helmugarik ez duten pertsonak. Asmo bat duten pertsonak eta asmorik ez duten pertsonak. Denbora mantsotu nahi duten pertsonak eta denbora bizkortu nahi duten pertsonak. Aldi batez hiriko giro nabarra ikuskatu ondoren, arnasa hartzen du sakon eta liburuko orrietara itzultzen da. Besoa luzatzen du kafe-kikara hartzeko. Pare bat aldiz baino zupatu ez duen zigarreta errauts bihurtzen ari da hautsontzian jatorrizko tankerari eutsiz.

Jatetxeko ate automatikoa irekitzen da eta mutil gazte luze eta argala sartzen da. Larruzko beroki beltza, oliba

koloreko galtza zarpailduak eta bota marroiak daramatza. Ilea nahiko luzea eta tximatsua. Agian ez du aukerarik izan azken egunetan ilea garbitzeko. Agian sastraka sarri baten azpitik narrastu berri da. Edo agian berezkoa du ile zarpailsua eta gustura darama horrela. Argala dagoen arren, gazte liraina baino eskas jaten duena dirudi. Musika-tresna baten kutxa beltz handia darama sorbaldan eskegita. Haize-tresna da. Horretaz gain ehunezko zorro zikin bat darama zintzilik. Itxuraz partiturez eta beste hainbat gauzaz goraino dago. Eskuineko masailean atentzioa ematen duen orban sakona du. Gauza zorrotz bategen sortutako zauri motza da. Hortaz aparte ez du beste berezitasun deigarriarik. Gazte arras arrunta da. Bidea galduta dabilen kaleko txakurra dirudi, aiurri onekoa baina buru ez oso zorrotzekoa.

Harrera-zerbitzaria hurbiltzen zaio eta atzealdeko mahai baterantz eramaten du. Neska irakurlearen mahaiaren aldamenetik igarotzen da. Mahaia atzean uzten duenean, dra, geratu egiten da, bat-batean zerbait gogora etorri balitzaio bezala, eta neskaren mahaiaren ertzerantz itzultzen da poliki, film bat atzerantz mugituko balitz bezala. Burua alhora makurtuz arretatsu begiratzen du neskaren aurpegia. Oroimen bati jarraiki zaio gogoia. Unetxo bat behar du gogoratzen den arte. Edozer egiteko ere unetxo bat behar duen horietakoa da.

Mutilaren presentziaz ohartzten da neska, burua liburutik altxatzen du begiak estutuz eta so egiten dio aurrean

zutik duen gazteari. Lagun hura hain luzea izanda, oso gora begiratu behar du. Bien begiradak gurutzatzen dira. Mutilak irribarre egiten du. Asmo txarrik ez duenaren irribarre da.

–Barka, agian oker nabil, baina ez al zara Eri Asairen ahizpa gaztea? –dio mutilak neskari.

Neska mutu geratzen da. Lorategi bateko bazter batean neurritz gain hazi den landare bati bezala begiratzen dio aurpegira.

–Lehen ere egon ginen elkarrekin behin, ezta? –jarraitzen du mutilak–. Zera... zure izena Yuri da, ezta? Zure izena ahizparenetik silaba batean ezberdintzen da.

Tentuz begiratzen jarraitzen du neskak eta zuzenketa labur bat adierazten du.

–Mari.

Mutilak hatz erakuslea altxatzen du airean.

–Horixe, Mari. Eri eta Mari. Silaba bakarrean ezberdin. Ez zara nitaz oroitzen, ezta?

Marik burua albora makurtzen du leunki. Ezin jakin baiezkoa ala ezezkoa eman duen. Betaurrekoak kendu eta kafe-kikararen aldamenen pausatu ditu.

–Elkarrekin eseriko zarete? –galdetzen du zerbitzariak.

–Bai –erantzuten du mutilak.

Zerbitzariak karta pausatzen du mahaiaren gainean. Mutila Mariren parean esertzen da eta musika-tresna al-demeneko aulkian uzten du.

–Eser naiteke hemen une batez? –galdetzen du bat-batean otu balitzaio bezala–. Berehala joango naiz zerbait jan ondoren. Hitzordua daukat beste toki batean.

Marik kopeta zimurtzen du apur bat.

–Hori lehenago ere galde zenezakeen, ezta?

Mutilak haren hitzen esanahia mamurtzen du.

–Norbaitekin hitzordua dudala?

–Hori ez –erantzuten du Marik.

–Orduan manerak dira arazoa.

–Horixe.

Mutilak baiezko mutua ematen dio.

–Jakina, aurretik galdetu behar nizun zurekin eser nintekeen. Barka. Jatetxea lepo dago, ordea, eta ez dizut luze egingo traba. Ongi, beraz?

Marik bizkarra altxatzen du pitin bat. *Zuk erabaki* adierazi asmoz, antza. Mutilak karta zabaldu eta begiratzten du.

–Jan duzu dagoeneko?

–Ez naiz gose.

Karta aurpegi arduratsuz arakatu ostean, sast, itxi eta mahai gainean pausatzen du mutilak.

–Egitan ez dut irekitzeko beharrik. Itxurak baino ez ditut egiten une batez.

Marik ez dio ezer.

–Hemen oilasko-entsalada baino ez dut hartzen. Erabakita dago. Nire iritziz, *Denny*’sen jatea merezi duen gauza bakarra oilasko-entsalada da. Kartako jaki gehienak dagoeneko probatu ditut. Jan duzu hemengo oilasko-entsalada?

Marik ezezko mutua ematen dio.

–Ez dago batere gaizki. Oilasko-entsalada eta ogi kris-kras txigortua. Hori baino ez dut jaten *Denny*’sen.

–Zergatik irakurri duzu karta goitik behera, orduan?

Betertzeko zimeldurak leuntzen ditu mutilak hatz batekin.

–Ez al litzateke guztiz ziztrina *Denny*’sera etorri eta karta begiratu ere egin gabe bat-batean oilasko-entsalada eskatzea? Emango luke oilasko-entsalada gustura jaten dudalako baino ez naizela etortzen maiz *Denny*’sera. Beraz, karta irekitzen dut eta une batez aiko-maiko egon ondoren oilasko-entsalada aukeratzeko plantak egiten ditut.

Zerbitzaria urarekin itzultzen denean, oilasko-entsalada eta ogi kris-kras txigortua eskatzen ditu.

–*Kris-kras* guztiz txigortua, bai? –azpimarratzen du—. Ia kiskalia.

Jaten amaitu ondoren hartzeko kafea ere eskatzen du. Zerbitzariak eskuan daraman makinan idatzi du eskaria, gero ozen errepikatzen du egiaztatzeko.

–Eta kafe pixka bat nire lagunarentzat, ez? –dio mutilak Mariren kafe-kikara hatzaz erakutsiz.

–Ongi da, oraintxe ekarriko dut kafea.

Mutilak zerbitzaria begiratzen du urruntzen.

–Oilaskoa ez duzu gustukoa? –galdetzen dio mutilak neskari.

–Ez da hori –esaten du Marik–. Baina oilasko gutxi jaten dut etxetik kanpo.

–Zergatik?

–Jatetxe kate hauetan eskaintzen duten oilaskoa nork daki zer antibiotikoz beteta dagoelako. Hazkuntzarako hormonak eta horrelakoak dituzte. Oiloak kaiola estu eta ilunetan hertsita daude, indizioak ematen dizkiete etengabe, produktu kimikoz betetako jakiekin hazten dituzte, gero zinta garraiatzaileetan jartzen dituzte eta makina batek lepoa bihurtzen die eta ondoren lumak erauzten dizkie.

–Halakorik! –esaten du mutilak irribarretsu. Beter-tzeko zimirdurak sakontzen zaizkio–. Oilasko-entsalada George Orwellen erara.

Marik mutilari begiratzen dio begiak erdi itxita. Ezin du zehazki ebatzi ea arpa jotzen ari zaion.

–Dena den, hemengo oilasko-entsalada ez dago bati-tere gaizki. Benetan.

Hori esan ondoren, orduantxe bururatu balitzaio bezala, larruzko berokia kendu, tolestu eta aldame-neko aulkian pausatzen du. Gero gogoz igurzten ditu bi eskuak mahaiaren gainean. Jakaren azpian lepo biribildun puntu lodiko jertse berdea darama. Ileek bezala, jertsearen artileak ere listua dauka han eta hemen.

Bere itxura hainbeste zaintzen ez duen horietakoa dirudi.

–Hotel bateko igerilekuan ezagutu genuen elkar Xinagawan, ezta? Udan, orain bi urte. Gogoan duzu?

–Zer edo zer.

–Nire lagun bat, zure ahizpa, zu eta ni geunden. Lau lagun. Gu unibertsitatean hasi berriak ginen, zu batxilergoa egiten ari zinen oraindik, ezta?

Marik baiezko mutua ematen dio axolagabe.

–Nire laguna zure ahizparekin zebilen orduan eta ni eramanez ninduen hitzordu bikoitza delakoa egiteko. Nonbait nire lagunak lau gonbidapen-txartel lortu zituen hotel-igerileku hartarako. Ahizpak zu ekarri zintuen. Baina zuk ez hu eta ez mu, denbora osoan igerilekuan sartuta ibili zinen izurde gazte baten antzera igerian. Gero hoteleko te-gelara joan ginen eta izozkia hartu genuen. Melba melokotoia eskatu zenuen.

Marik kopeta zimurtzen du.

–Nolatan dituzu gogoan huskeria horiek guztiak oraindik?

–Inoiz ez nuen hitzordua izan melba melokotoia hartzen duen neska batekin, eta, gainera, polit-polita zinelako, noski.

Marik mutilaren aurpegia begiratzen du axolagabe.

–Gezurti halakoa! Zazpi begiz zaindu zenuen nire ahizpa.

–Benetan?

Marik isilune batekin erantzuten dio.

–Baliteke –onartzen du mutilak–. Izan ere, ez dakit zergatik baina gogoan dut zure ahizpak bikini txiki-txiki bat zeramala.

Marik zigarreta bat hartu, ahoan jarri eta pizgailuarekin pizten du.

–Zera... –dio mutilak–. Ez dut *Denny's* defendatu nahi, baina iruditzen zait kaltegarriagoa dela zigarreta paketea erretzea *agian* arazoren bat izan dezakeen oilasko-entsalada bat jatea baino? Ez zaude ados?

Marik ez entzunarena egiten du.

–Egun hartan beste neska batek etorri behar zuen, baina azken unean gaixotu zen eta ahizpak behartuta joan nintzen, bi bikoteak osatzeko –dio neskak.

–Horregatik zeunden aldarte txarrean.

–Gogoratzen zaitut, bai.

–Benetan?

Marik eskuineko masailera eramaten du hatza. Mutilak masaileko orban sakona ukitzen du.

–Honegatik, ezta? Umetan bizikletarekin ziztu bizian aldapan behera nenbilela ez nuen asmatu bihurgunean norabidea aldatzen. Bi zentimetro harago eta, zizt, eskuineko begia ere galduko nuen. Belarri-gingila ere itxuragabetuta daukat. Ikusi nahi?

Marik kopeta zimurtu eta ezezko mutua ematen dio.

Zerbitzariak oilasko-entsalada eta ogi txigortua ekartzen ditu mahaira. Kafe egin berriz betetzen du Mariren

kikara. Orduan, eskatutako guztia ekarri duela egiazta-tzen du. Mutilak sardexka eta aiztoa eskuan hartu eta oï-lasko-entsalada jaten hasten da ohikeria bat balitz bezala. Ondoren ogi puska bat hartzen du eskuan eta arretatsu arakatzen du, kopeta zimurtuz.

–*Kris-kras* egiteko mila aldiz esanda ere, ezinezkoa da ogia eskatutako moduan txigortua lortzea. Ezin dut ulertu. Japoniarren lanerako gogoa, gainera puntako teknologiaren kultura eta *Denny's* jatetxe katearen merkatu-estrategia, hori guztia hor izanda, ez luke hain zaila izan behar ogia kris-kras txigortua lortzea, ezta? Zer dela eta ezin dute lortu? Zer balio du ogia eskatutako moduan txigortzeko gai ez den zibilizazio batek?

Marik ez dio jaramonik egiten.

–Dena den, zure ahizpa neska eder-ederra zen –dio mutilak bere buruarekin ariko balitz bezala.

Marik aurpegia altxatzen du.

–Zergatik hitz egiten duzu lehenaldian?

–Zergatik?... Aspaldiko kontuak direlako erabili dut lehenaldia, besterik gabe. Horrekin ez dut esan nahi orain ederra ez denik edo horrelakorik.

–Oraindik ere ederra da gero.

–Jakina. Halere, egia esateko, Eri Asai ez dut bereziki ongi ezagutzen. Institutuko garaian urte batez gela berean izan ginen, baina ez genuen apenas hitz egiten elkarrekin. Edo, hobe esanda, ez zuen nirekin hitz egiteko batere gogorik erakutsi.

–Baina zuk bazenuen interesa, ezta?

Mutilak unetxo batez hausnartzen du sardexka eta aiztoa airean goratuz.

–Interesa? Tira, jakin-min intelektuala edo horrelako zerbait.

–Jakin-min intelektuala?

–Esan nahi dut, nola sentiaraziko nintzateke Eri Asai bezalako neska eder batekin hitzordua izanez gero? Antzeko zerbait. Aldizkari-azaletako modeloak bezalakoa da gero.

–Hori da jakin-min intelektuala?

–Neurri batean, bai.

–Baina orduan zure laguna zebilen Eriekin, zu haren lagun gisa baino ez zinen joan, ezta?

Ahoa beteta zauka-zauka murtxikatuz, baiezko mutua ematen dio. Presarik gabe, denbora hartuz murtxikatzen du.

–Esan daiteke gizaki zuhurra naizela. Ez dut gustuko arreta gune izatea. Hobe dagokit osagarria izatea. Aza ontzutua, patata frijituak, edo *Wham* taldeko bigarren abeslaria bezala.

–Horrexegatik elkartu zintuzten nirekin.

–Baina..., zu ere polita zinen.

–Gogoko duzu benetan lehenaldian hitz egitea, ezta? Mutilak irribarre egiten du.

–Ez, ez horrelakorik. Orduko sentimenduak azaldu nahi nituen zintzoki gaurko ikuspegitik, besterik ez. Oso

ederra zinen. Benetan. Nahiz eta fitsik ere ez zenuen esan kasik.

Mutilak aiztoa eta sardexka plateraren gainean pausatuta eta ura edaten du. Gero, ezpain-ertzak lehortzen ditu paperezko ahozapiarekin.

–Zu igerian zinenean Eri Asairi galdetu egin nion: zergatik ez du nirekin hitzik ere egiten zure ahizpak? Arazoren bat al dut?

–Eta zer esan zizun?

–Ez duzula inorekin luze hitz egiteko ohiturarik, hori esan zidan. Pixka bat berezia zinela, japoniarra izan arren, japoniera baino txineraz egiten zenuela gehiago. Beraz, ez nuela arduratu behar. Ez zenuela uste arazoren bat nuela.

Marik zigarreta itzaltzen du hautsontzian mutu.

–Ez zenidan arazo berezirik nabaritu, ezta?

Marik une batez gogoetatzen du.

–Ez naiz hain zehazki oroitzen, baina uste dut ezetz.

–Primeran. Arduratuta nengoen jada. Noski, badut zenbait arazo, baina nire barne arazoak direnez, amorragarri litzaidake horiek beste inork hain erraz ezagutzea. Bereziki igerileku baten ondoan uda oporretan.

Marik berriro aurpegira begiratzen dio hori egiaztatu nahiko balu bezala.

–Ez dut uste zure barne arazoak bereziki nabarmenak zirenik.

–Lasaitzen nau horrek.

–Zure izenaz ez naiz oroitzen –dio Marik.

–Nire izenaz?

–Bai.

Mutilak buruari eragiten dio aldez alde.

–Berdin dio horrek. Izen guztiz arrunta da. Noizean behin nik neuk ere ahaztu nahiko nuke. Baina norberaren izena ezin da hain aise ahaztu. Besteenak, gogoratu beharko nituzkeenak ere, etengabe ahazten zaizkit.

Mutilak leihotik kanpora begiratzen du unetxo batez, inoiz galdu behar izan ez lukeen zerbait bilatuko balu bezala. Gero Mari begiratzen du berriro.

–Denbora osoan neure buruari galdetu diot, harrituta, ea zergatik ez zen behin ere uretan sartu zure ahizpa. Egun bero-beroa zen eta, gainera, igerileku dotore hartara joan ginen berariaz.

*Hori ere ez dakizu* dio Mariren begiradak.

–Makillajea zapuztu nahi ez zuelako. Ez dago argi? Gainera, halako bikiniarekin ezin da behar bezala igeri egin.

–Hori al zen? –dio mutilak–. Ahizpak izateko, oso ezberdinak zarete.

–Nork bere bizitza du.

Marik esandakoa gogoan darabil une batez mutilak.

–Zergatik izango ote da –dio orduan– nork bere bizitza egiten duela? Izan ere, zuen kasuan guraso berberak dituzue, etxe berean hazi zarete, biok neskak zarete; orduan zergatik bilakatu dituzue izaera zeharo ezberdinak?

Non bereizi da bidea bitan? Batak seinaleztapen bandera baino handiagoa ez den bikinia darama eta itxura zoragarria du igerilekuaren ondoan eserita, besteak eskolako bainujantzia darama eta denbora osoan igeri dabil izurdea bailitzan.

Marik aurpegira begiratzen dio mutilari.

–Eta hori orain berrehun hitzetan edo argitu behar dizut zure oilasko-entsalada jaten duzun bitartean?

Mutilak ezezko mutua ematen dio.

–Noski ezetz. Jakin-mina nuen, gogora etorri zaidana ahoskatu dut, besterik gabe. Ez duzu zertan erantzun. Neure buruari galdetzen nion besterik gabe.

Berriro oilasko-entsaladari ekin nahi dio, baina iritiz aldatzen du eta hitz egiten jarraitzen du.

–Nik ez dut anai-arrebarik. Beraz, egiatan jakin nahi nuen hori. Noraino diren antzekoak anai-arrebak eta zenbateraino ezberdintzen diren.

Marik isilik darrai. Aiztoa eta sardexka eskuan, mutilak mahaiaren gaineko aireari begiratzen dio pentsakor une batez.

–Itsasontzia hondoratu ostean –dio mutilak–, Hawaii inguruko uharte batera iritsi ziren hiru anaien istorioa irakurri nuen behin. Kondaira zahar bat da. Oso antzinakoa. Haurra nintzenean irakurri nuenez, xehetasun asko ahaztu zaizkit baina istorioak honelako zerbait zioen. Hiru anai gazteak arrantzan irten ziren eta ekaitzak harrapatu zituen, luze itsasoan noraezean ibili ondoren biztanlerik gabeko

uharte batera iritsi ziren azkenean. Uhartea ederra zen, palmondoak zituen eta zuhaitzak frutaz gainezka zeuden, eta uhartearen erdi-erdian mendi handi bat zegoen piku-piku. Gau hartan jainko bat agertu zitzaizen ametsetan eta esan zien: “Hor aurreraxeago, itsasertzean, hiru harritzar biribil daude. Nork bere gustuko lekura bultzatu beharko du bere harritzarra. Eta leku horretan bizi beharko du bakoitzak. Zenbat eta gorago iritsi, orduan eta munduaren ikuspegi zabalagoa izango duzue. Zuen esku dago noraino iritsi”.

Mutilak ura edan eta arnasa hartzen du. Marik axo-lagabe begiratzen badu ere, adi-adi ari da entzuten.

–Honaino dena ulertu duzu?

Marik baiezko mutua ematen dio emeki.

–Jarraipena entzun nahi? Interesik ez baduzu, bertan behera utz dezakegu.

–Oso luzea ez bada.

–Ez da luzea. Istorio simple samarra da.

Beste behin ura edan ondoren kontakizunarekin jarraitzen du.

–Jainkoak esandakoari jarraiki, hiru anaiek hiru harritzar aurkitu zituzten itsasertzean. Eta jainkoak esanda bezala harritzarrak bultzaka hasi ziren. Harritzar handi eta pisuak ziren, eta haiek bultzatzea lan nekeza zen, gainera aldapa gora aurrera egitea are zailagoa zen. Anaia gazteenak etsi zuen lehen. “Anaiok, hau leku egokia da niretzat. Hondartza hurbil dago, arrantzan egin dezaket hemen.

Ongi bizi naiteke horrela. Ez dut behar munduaren ikuspegi hain zabala”, esan zuen anaia gazteenak. Bi anaia zaharrenek, ordea, aurrera jarraitu zuten. Baina aldaparen erdian edo zeudenean bigarren anaia etsi zuen. “Anaia, leku egokia da hau niretzat. Hemen fruitu oparoak ditut, eta ongi bizi naiteke horrela. Ez dut behar munduaren ikuspegi hain zabala”. Anaia zaharrenak aldapan gora jarraitu zuen. Bidea gero eta estuagoa eta pikoagoa zen, baina ez zuen etsi. Saiatua zenez, munduaren ikuspegi pixka bat zabalagoa izan nahi zuen. Beraz, indar guztiak bilduz harritzarra aldapa gora saka-saka bultzatzen jarraitu zuen. Hainbat hilabete behar izan zituen, ia jatekorik eta edatekorik gabe, harritzarra mendiaren gailurrera eramateko. Hara iristean mundua behatu zuen. Inork baino munduaren ikuspegi zabalagoa zuen handik. Hori izango zen bere bizilekua. Belarrik hazten ez den, txoririk heltzen ez den lekua zen. Edateko izotza eta antzigarra zurrupatu behar zituen, jateko lurretik erauzitako goroldioa marraskatu behar zuen. Hala ere, ez zen damu. Mundu osoa ikus zezakeelako... Horregatik, gaur ere harritzar biribil bakar bat dago Hawaiiko uharte hartako mendiaren gailurrean. Horrela dio istorioak.

Isilunea.

–Istorio horrek ikasbiderik edo ba al du? –galdetzen du Marik.

–Bi ere baditu ziurrenik. Lehena –dio mutilak hatza goratuz–, gizaki guzti-guztiak ezberdinak garela. Baita

anai-arrebak ere. Eta, bigarrena –dio bigarren hatza altxatuz–, zerbait benetan jakin nahi baduzu, hori lortzeko prezio bat ordaindu behar duzula.

–Niri iruditzen zait bi anaia gazteenek hautatuko bizimodua zentzuzkoagoa dela nolabait –azaltzen du Marik bere iritzia.

–Baliteke –onartzen du mutilak–. Inori ez zaio bururatzen Hawaiiraino joatea antzigarra zurrupatuz eta goroldioa marraskatuz bizitzeko. Noski. Baina anaia zaharrenak munduaren ikuspegi ahalik eta zabalena izateko jakin-min hura zuen, eta ezin izan zuen ito. Ordaindu beharreko prezioa hain altua izanagatik ere.

–Jakin-min intelektuala zuen, beraz.

–Horixe!

Marik zerbait du gogoan. Liburu lodiaren gainean dauka pausatuta esku bat.

–Zer liburu den adeitasunez galdetzen badizut ere, ez didazu erantzunik emango, ezta? –dio mutilak.

–Ziurrenik ez.

–Oso pisua dirudi.

Mari mutu geratzen da.

–Ez da behintzat neskato batek poltsa arrunt batean daraman liburu horien neurrikoa.

Marik isilik jarraitzen du. Mutilak etsi egiten du eta jateari ekiten dio berriro. Oraingoan isilik geratzen da, oïlasko-entsaladan biltzen du gogoa eta den-dena jaten du. Denbora hartzen du ongi mastekatzeko eta ur pila bat

edaten du kilimiliklik. Hainbat aldiz eskatzen dio zerbitzariari edalontzia urez betetzeko. Ogi txigortuaren azken apurrak ere jaten ditu.

–Hiyoxi aldean bizi zarete, ezta? –dio mutilak. Zerbitzariak plater hutsa eraman du ordurako.

Marik baiezko mutua ematen dio.

–Ba, azken trenera ez zara iritsiko dagoeneko. Taxia hartu beharko duzu, bihar goizera arte ez dago trenik.

–Hainbeste badakit –dio Marik.

–Ongi orduan.

–Ez dakit zu non bizi zaren, baina zure azken trena ere joan da honezkero, ezta?

–Kôenji auzoan bizi naiz. Baina bakarrik bizi naiz eta, dena den, goizera arte proba-saioan izango naiz. Gainera, beharrezkoa balitz, nire lagun batek autoa du.

Aldamenean duen musika-tresnaren kutxari ahurukalditxoak ematen dizkio tas-tas leunki. Bere zakur maitea izango balitz bezala.

–Hurbileko eraikin baten sotoan entseatzen dugu taldearekin –dio mutilak–. Nahi adina zarata sor dezakegu hor, inork ez digu errietarik egingo. Berogailua ez dabil, eta sasoi honetan nahiko hotza da lekua, baina doan erabil dezakegunez, ezin luxurik eskatu.

Marik musika-tresnaren kutxa begiratzten du.

–Tronboia da?

–Hara, asmatu duzu! –dio mutilak pixka bat harrituta.

–Badakit nolakoa den tronboiaren forma gutxi gorabehera.

–Hala ere, tronboia izeneko musika-tresna bat dagoenik ere ez dakiten neskato pila dago seguru mundu honetan. Baina zer egingo dugu. Ez Mick Jagger, ez Eric Clapton, inor ez da izar bihurtu tronboia joz. Jimi Hendrixek edo Pete Townshendek inoiz tronboirik apurtu al dute eszenatokian? Noski ezetz. Nahiago izan dute guztiek gitarra elektrikoa apurtzea. Tronboia apurtuz gero, barrea baino ez lukete eragingo.

–Zergatik aukeratu duzu tronboia orduan?

Ekarri berri dioten kafeari krema eransten dio mutilak eta zurrupada bat ematen dio.

–Institutuan ikasten nuenean, *Blues-ette* izeneko jazz diskoa erosi nuen behin ausaz bigarren eskuko diskoen denda batean. Aspaldiko LP bat zen. Zergatik erosiko nuen horrelako zerbait? Ez dut gogoan dagoeneko. Ordura arte ez nuen inoiz jazz musika entzun. Dena den, A aldeko lehen pieza *Five spot after dark* (Gauaren sakonean), eta *mmmundiala* zen. Curtis Fuller zen tronboi-jotzailea. Lehenengo aldiz entzun nuenean argia ikusi nuela sentitu nuen. Bai jauna, horixe da nire tresna, pentsatu nuen. Ni eta tronboia. Patuak erabakitako enkontrua.

*Five spot after dark* piezaren lehen zortzi notak abesten ditu mutilak ahopeka.

–Ezagutzen dut hori –dio Marik.

Mutilak ahoa bete hortz begiratzen du.

–Ezagutzen duzu?

Marik piezaren jarraipena abesten du ahopeka.

–Nolatan ezagutzen duzu? –dio mutilak.

–Ezin dut ezagutu edo?

Mutilak kafe-kikara mahaiaren gainean pausatzen du eta buruari eragiten dio aldez alde emeki.

–Jakina, nola ez. Baina, tira... , sinestezina da. Garai hauetan *Five spot after dark* ezagutzen duen neskatorik izatea ere! Dena den, Curtis Fuller hark erabat txunditu ninduen ez tronboia jotzen hasi nintzen. Gurasoengandik dirua mailegatu eta bigarren eskuko tronboia erosi nuen, eskolako haize-tresna taldean sartu nintzen, eta zenbait taldetan jo dut institutuko garaitik. Hasieran rock talde batean nengoen. Aspaldiko *Tower of power* taldearen antzekoa. Ezagutzen duzu *Tower of power*?

Marik ezezko mutua ematen dio.

–Berdin dio –jarraitzen du mutilak–. Hori aspaldiko kontua da, orain benetako jazz egiten dugu, jazz bakarrik. Unibertsitatea ez da beste munduko gauza, baina gure taldea ez da batere txarra.

Zerbitzaria dator ur basoak betetzera. Mutilak ezezkoa ematen dio eta eskumuturreko erlojua begiratzen du.

–Ordua da. Joan behar dut.

Mari isilik geratzen da. *Inork ez zaitu hemen lotzen* dio haren aurpegiak.

–Dena den, taldekideak beti berandu etortzen dira  
–dio mutilak.

Marik ez du zer adierazi horri buruz.

–Eskumuinak eman dizkiozu ahizpari nire partetik,  
mesedez.

–Eta ezin diozu zeuk deitu? Etxeko telefono zenbakia badaukazu, ezta? Gainera, nola eman behar dizkiot eskumuinak zure izenik ere ez badakit.

Mutila gogoetan murgiltzen da une batez.

–Baina deitzen badut eta Eri Asaik hartzen badu telefonoa, zertaz hitz egingo dugu?

–Instititutuko ikaskideen bileraz edo, asmatuko duzu zerbait.

–Ez naiz ona hizketan. Inoiz ez naiz izan.

–Nirekin, ordea, luze hitz egin duzu.

–Zurekin hitz egin dezaket nolabait.

–Nirekin hitz egin dezakezu *nolabait* –Marik mutilaren hitzak errepikatzen ditu–. Baina nire ahizpa aurrean duzunean mihia lotzen zaizu?

–Horrela dirudi.

–Jakin-min intelektual handiegia duzulako?

*Nork daki* lauso bat agertzen da mutilaren aurpegian. Zerbait esatera doa, baina iritziz aldatzen du eta ez du ezer esaten. Hatsaldi luzea egiten du. Mahai gainean dagoen kontua jasotzen du eskuan eta kalkuluak egiten ditu buruz.

–Nire partea ematen badizut, gero kontua ordainduko duzu?

Marik baiezko mutua ematen dio.

Mutilak neska begiratzen du eta gero haren liburua. Ezbaian dago unetxo batez.

–Zera, ziurrenik ez da nire kontua, baina zerbait gertatu zaizu? Esan nahi dut, mutilarekin arazoak edo gurasoekin liskarra? Goizera arte hirian bakar-bakarrik gertatzeko asmoa duzulako diot.

Marik betaurrekoak jantzi eta mutilari aurpegira begiratzen dio zuzenean. Neskaren isiltasuna trinkoa eta hotza da. Mutilak bi eskuak altxatzen ditu ahurrak neskari erakutsiz. Bere ozarkeriagatik barkamena eskatuz edo.

–Goizeko bostak aldera itzuliko naiz zerbait jatera –dio mutilak–. Ordurako seguru gose izango naizela. Poztuko naiz hemen topatzen bazaitut.

–Zergatik?

–Ba, zera...

–Arduratuta zaudelako?

–Hori ere bai.

–Nire ahizpari eskumuinak eman behar dizkiodalako?

–Horregatik ere bai neurri batean.

–Nire ahizpak ez luke jakingo tronboia eta labe-txi-gorgailua bereizten. Baina Gucci eta Prada lehen begirtuan bereizten ditu.

–Nork bere borroka-lekuak ditu –dio mutilak irribarretsu.

Orduan berokiko poltsikotik kaier bat ateratzen du eta zerbait idazten du bertan boligrafoz. Orria erauzten du eta neskari eskuratzen dio.

–Nire mugikorraren zenbakia. Zerbait baldin bada, deitu. Zera..., ba duzu mugikorrik?

Marik ezezko mutua ematen dio.

–Banekien, bai –dio mutilak miresmenez–. Senak belarrira xuxurlatu dit neska honek ez dituela batere atsegin mugikorrak.

Tronboiaren kutxa eskuan hartu eta altxa egiten da mutila. Larruzko berokia janzten du. Irribarrearen aztarna dauka oraindik aurpegian.

–Gero arte.

Marik baiezko mutua ematen dio hotz eta motz. Jasotako orritxoak kontuaren aldamenean uzten du arreta berezirik eskaini gabe. Orduan arnasa hartzen du sakon, masaila esku batean bermatzen du eta irakurketara itzultzen da. Jatetxean Burt Bacharach-en *April fools* abestia entzuten da baxu-baxu.